



## 407 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren 4ean.

Udalaren Komunikazio Saileko "Gotti Betti" Oiartzungo ekitaldien agenda inprimatzeko eta diseinatzeko lanak egiteko kontratazio espedientea martxan jarri zela ikusirik, jendaurrean zabaldu gabeko negoziaziozko prozedura bidez.

Aipatu kontratazio espedientean parte hartzeko gonbidapena ondorengo enpresei bidali zitzaieela ikusirik: IMPRELAN, MCC GRAPHICS eta SIGNOS.

Kultura Batzordeak Udalaren Komunikazio Saileko "Gotti Betti" Oiartzungo ekitaldien agenda inprimatzeko eta diseinatzeko lanak behin behingoz esleitzeko egin duen proposamena ikusirik.

Kultura Batzordeak 2010eko maiatzaren 3an egindako bilkuran gai honi buruz luzatutako diktamena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, Udalaren Komunikazio Saileko "Gotti Betti" Oiartzungo ekitaldien agenda inprimatzeko eta diseinatzeko lanak egiteko kontratua IMPRELAN enpresari behin-behingoz esleitzea ERABAKI DUT 8096,80 €ko prezioarekin (B.E.Z. barne), eta lanak hilabete bakoitzeko 26an egikaritze epearekin.

Era berean, 404,84 €ko behin betiko bermea jarri beharko du eta gizarte segurantzaren eta Hazienda ziurtagiriak aurkeztu, honetarako 15 egun balioduneko epea izango delarik, behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hau igaro eta gero, 10 egun balioduneko epean behin betiko esleipena egingo da.

Ordainketa, udal aurrekontuko 1-01-01-226-111-00-03-2010 (A-873/2010) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jna.k agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

